

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/11/6 | 311

- TAO sistemak zalantza ugari Ibarra
- Landa eremuko emakumeak topikoak hautsiz
- Bitaminak eta mineralak hotzari aurre egiteko
- Aitor Mendiluze errusiar mendira igotzeko prest
- Azaroaren 8an aizkora apustu handia
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

A close-up portrait of Asier Izagirre, a man with short dark hair and light-colored eyes, wearing a black and white patterned knit jacket. He is looking directly at the camera with a slight smile.

Asier Izagirre,
Mendiak
eman eta
kendutakoaz

Inbertsio handiak herri txikietan



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
.....
OBESITATEA
.....
NUTRIZIO BERREZIKETA
.....
ARIKETA FISIKOA
.....
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

GOITIK

Ikuspegi zabala bezeroaren eskura

Goitik, tolosan kokatzen den diseinu grafiko enpresa bat da. Esperimentzia handia duten programatzaile, ilustratzaile eta diseinatzailez osatua. Azken teknologiaz baliatuz lanaren pausu guztiak, ideiarekin sorreratik amaitzeraino, egiteko gaitasuna dugu. Kalitatezko lan eta zerbitzua zure eskura. Sar zaitez gure webgunean eta azken lanen ereduak ikusi ahal izango dituzu. Ongi etorria.

- Web orriak
- Publizitate kanpainak
- Logotipoak / Irudi korporatiboa
- Liburuak / aldizkariak
- Rotulazioa

Jar zaitez gurekin harremanetan:

943 67 08 19

goitik@goitik.com

www.goitik.com

Korreo, 45 - Behea - 20400 Tolosa - Gipuzkoa



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GORTIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Inbertsio handiak herri txikietan

1.000 biztanle baino gutxiago dituzten landa-eremuko herriak berrindartzeko apustua egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Baserri bideak, ur-hornidura, azpiegitura balioanitzak eta etxebizitzak egiteko Landagipuzkoa 32 diru-laguntza programa jarri du martxan. Diru-laguntzak Etorlurrek kudeatzen ditu, eta eskualdeko 16 herriek aurkeztu dute euren proiektua. Kasu gehienetan, egitasmo bakoitzak duen aurrekontuaren %80a finantzatu da programaren bidez. Tolosaldeko herri txikiek euren bizi kalitatearentzat oso garrantzitsuak diren proiektuak gauzatuko dituzte programa honi esker; diru-sarrera urriengatik, euren kabuz inoiz egin ezingo lituzketenak. Galtzaundiren 309 alean Abaltzisketan egingo duten eraikin balioanitzak ezagutu genuen. Hurrengo erreportaian gainontzeko herrietan gauzatuko diren proiektuak dituzu.

8-11. orrialdeak

“Niretzat badago lasterketa bat, eta horregatik gaude mundu honetan. Baina mendian lasterketak oso arriskutsuak izaten dira. Nik esaten diot Edurneri: Agian bigarregoa izango zara, baina garrantzitsuena bizirik egotea da”.

Elkarrizketa: Asier Izagirre

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Jone Otxoa-Aizpurua eta Garbiñe Biurrun	4-5
	Normalizazioa: Eskualdeko Udalen hizkuntz politikaren neurketa	6-7
	Eskualdeko albisteak: TAO sistemari buruzko eztabaida Ibarren	12-13
	Eskualdeko albisteak: Landa eremuko emakumeak solasean	14-15
	Koxk: Bitaminak eta mineralak hotzari aurre egiteko	19
	Bertsolari Txapelketa Nagusia: Aitor Mendiluzeri elkarrizketa	20-21
	Kirol saltsa: Mindegia eta Larretxearen arteko apustuari begira	22-23

Ez ditut gustuko



Jone Otxoa-Aizpurua
Abeslaria

4 Esaldiak formulatzeko modu asko daude eta batzuk ez zaizkit batere gustatzen. Hala ere, ez dut uste gustu kontua bakarrik denik.

Estatistiken ondotik bideratutako esaldiak dira gustatzen ez zaizkidan horiek; “zenbatero” adierazten duen denbora tarte bat aipatzen da lehenik eta ondoren, denbora tarte horretan gauzatzen den gertakari bat. Ez dakit ondo ulertzen ote den edo ondo azaldu ote dudana. Adibideak asko daude, eta adibideen zerrenda amaigabe bat ere egin nezakeen. Baina ez egitea erabaki dut zuetako inoren eguna ez zapuztearren. Munduan, periodikoki, astero, egunero, orduro, minuturo eta segundoro gertatzen diren ezbeharrak denak batera irakurtzea digeri ezina izatera irits liteke eta.

Hala ere, horietako bat aipatu nahiko nuke. Ez gordintasuna falta zaiolako. Inondik ere ez. Aste hone-

tan entzun berri dudana esaldia delako eta gogoeta hau egitera bideratu naudelako azaldu nahi dut. Erdi behartuta ikusi dut neure burua eta esaldi hori formulatzea pentsatu dut.

Orain egun gutxi, hizkuntza gutxituen inguruko dokumental bat ikusi genuen unibertsitatean.. Gauza asko kontatu ziren bertan, interesgarriak gehienak eta gure hizkuntza-errealitatearekin lotura handikoak. Baina atentzioa deitu zidaten hiru ideia nagusiak aipatu nahiko nituzke segidan. Honela bada, ranking bat eginez gero, hirugarren postuan, honako galdera hauze jarriko nuke: “gizarteak zer galduko zukeen zure hizkuntza existitu izan ez balitz?”.

Bigarren postua, berriz, inoiz orain arte pentsatu ez nuen galdera potolo bati emango nioke: “noiz desagertzen da hizkuntza bat, azken hiztuna hiltzen denean, edo azken aurreko hiztuna hiltzen denean?”.

Eta amaitzeko, gailurra, podiumaren tontorra, nola ez, atsegina ez dudana esaldi motari eman behar diot. Atsegina ez dudana, baina bere helburua lortu duena; ia ikaskide guztion ahotan ibili baitzen bolo-bolo. Honela zioen; “hurrenge ehun urtetan, bi astez behin hizkuntza bat desagertuko da munduan”.

Zuzena da. Erraz ulertzen da. Mezu argia du. Jendeari arreta bereganatzen dio. Ta-

malez, egia izango da esaldiak diona; adituen esantzan, munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik 3.000 desagertuko baitira datozen 100 urteetan. Baina ez nau inondik ere konbentzitzen. Inora eramaten ez gaituzten orokortasunetan erortzen garelakoan nago. Itsura horretako esaldien erabilera oso erraza da, arlo ezberdinetan erabil daitezke eta ikusle, entzule, irakurle edo dena delakoaren begi eta belarriak erakartzen ditu. Baina kito; hor geratzen da dena. Ez garamatza beste inora.

Normalean edo ia beti, al-biste edo gertakari lazgarrien berri emateko erabiltzen dira. Gertaera onak ere azaldu litezke, baina ez da gauza bera. Efektua bestelakoa da oso. Eman buruari buelta batzuk eta hasi pentsatzen egitura hori duten zenbat esaldi entzun dituzun orain artean. Nola erabiltzen diren, zer adierazteko erabiltzen diren, zein helburu duten... Aipatu berri dudana adibidean, hizkuntzen heriotzan zegoen muina. Baina pertsonekin erabil daiteke, eta erabiltzen da, gaixotasunekin, haurrekin, gosetearekin... munduan dauden desgrazi guzti-guztiekin.

Esaldi horiek sortzen duten efektua ez doa txoke emozionaletik haratago. Beldurra sartzen digute gorputzean baina azalean geratzen da; larru azalean.

Eta ez ditut gustuko.

Inkoherentziak

Ni ez naiz inor inori leziorik edo aholkurik emateko, baina herritarra naizen neurrian, ezinezkoa egiten zait hainbat jarre-raren aurrean ixilik egotea.

ALAKRANA arrantza ontziaren baiketaren aurrean Espainiako Gobernuak azaldu duen jarrera da azken urteotan ikusitako inkoherentziarik handienetarikoa bat (Playa de Bakio ontziarekin gertatu zen bezala). Badakit oso zaila dela bahiketari buruzko erabakiak hartzea Gobernu baten ardura daukazunean, baina onartezina iruditzen zait urteetan zehar mantendutako jarrera aldatzea inolako arrazoirik azaldu gabe.

Orain arte, ETAK burututako bahiketen aurrean, Espainiako Gobernuak jarrera garbi eta sendoa agertu dute: ez zegoen onartzerik terroristei dirurik ordaintzea bahituen askatasuna erosteko. Horretarako ematen zen arrazoirik nagusia zera zen: diru horrekin terroristek gero eta kalte handiagoak, delitu larriagoak eta sufrimen sakonagoa gauzatu zituztela. Baina beste arrazoi bat ere aipatu da kasu batzuetan: Estatuak ezin duela burua makurtu terroristen aurrean.

Nik dakidala, Espainiako Estatuarentzat Alakrana eta Playa de Bakio bahitu dituzten delitugileak terrorista hutsak dira eta baita ere, garbi daukat bahiketa horien bitartez lortzen dituzten diru mordoeekin zer egingo duten: arrantza ontziak bahitzen jarraitu, gero eta tresna eta arma sofistikatuago eta eraginkorra-goak erabiliz.

Baina, hara!, hau sorpresa!, arrantza ontziak eta, noski, arrantzaleak bahitu dituztenean, badirudi Gobernuari ahaztu egin zaizkiola ETAK burututako bahiketen aurrean mantendutako jarrera eta horretarako erabili diren argudioak. Hala da: Alakrana eta Playa de Bakio kasuetan, Gobernuak esan eta esan ari da ahalegin guztiak egingo dituztela arrantzaleak askatzeko (ahalegin horiek, noski, bahitzaileekin negoziatzea besterik ez dira, armadoreek eskatutako erreskatea ordaindu ahal izateko, nahiz eta Gobernuak zuzenean ez negoziatu). Gobernuak, beraz, negoziatzen ari da talde terroristekin – edo negoziatioak errazten ari da, behintzat – bahiketa bati irtenbiderik onena eman ahal izateko.

Hau arrazoizko jarrera iruditzen zait: Gobernu batek bere herritarren ongizatearen alde egin behar du (oso era orokorrean esanda, noski) eta, hainbat kasutan, herritar batzuek Gobernuak talde terroristekin negoziatzea ezinbestekoa dute euren bizitza edo askatasuna salbatzeko.

Beraz, ez al da inkoherentea “hemen” hainbat oztopo jarri izatea ETAK bahitutakoen askatasuna erosteko (prozesu penalak eta guzti jarraitu ziren negoziatio horiek erraztu zutenen aurka) eta, orain, Gobernu bera negoziatioak errazten aritzea?. Non dago aldea?. Zertan oinarritzen da Gobernuak jarrera aldaketa horretarako?. Hauteskunde interesak desberdinak al dira terroristak urrun daudenean?. Zer gertatuko li-



Garbiñe Biurrun
Epailea

Edozein erabaki hartzerakoan, gutxienezko koherentzia bat adierazi behar dute agintariek. Koherentzia era desberdinetan azaltzen da, gaiaren arabera, baina erraz identifikatzen da. Jarrera koherente batek eskatzen du egoera berdinei erantzun berdina ematea, edo ez kontrajarria, behintzat. Jarrera koherente batek ez luke onartuko orain egun edo hilabete batzuk esandakoari heldzea edota, bestela, oker zinela aitortzea. Jarrera koherente batek eskatzen du, azken finean, interes garbiei eta jakinei zerbitzea.

tzateke ETAK berriz ere herritar bat bahituko balu?. Zein izango litzateke Espainiako Gobernuaren jarrera?. Estatuak ez al da hunkitzen sufrimen horien aurrean?.

Nire iritziz, pertsona guztion bizitzak eta askatasunak merezi dute erantzun berdina. Terroristen koloreak ez luke, inolaz ere, erantzun hori baldintzatu behar.

Kontseiluak eskualdeko bost udalen hizkuntza politika neurtu eta UEMArek eredua txalotu du

Kontseiluak eskualdeko bost udalerritan neurtu ditu udalen hizkuntza politikak, eta neurketen emaitzak argitaratu ditu. Eskualdean, honako udal hauek neurtu ditu: **Altzo, Aduna, Anoeta, Villabona** eta **Tolosa**. Neurketen emaitza kuantitatiboei dagokienez, Kontseiluak 0-10 arteko nota eman die udalei, eta hauek dira emaitzak: Altzok 9,93; Anoetak 9,27; Adunak 9,11; Tolosak 8,21; eta Villabonak 6,87.

promisoa ikusten da, baita UEMArek ereduak euskararen normalizazioari onura dakarkiola ere.

Jon Bollarrek gogora ekarri du UEMAK bide propioa duela eta urratsez urrats aurrera doala bide horretatik: "Bidea norabide bakarrekoa

da, euskararen normalizaziorantz doa, eta emaitza onak eman ditu, gaur ikusi dugunez. Eta, esan bezala, bidelagunak asko izan arren, bidea zabala da, denok kabitzeko modukoa."

Bestetik, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak neurketen ibilbidea izan du hizpide: 2005ean udalen hizkuntz politika aztertzeke metodologikoki zorrotz diseinatutako ebaluazio tresna sortu zuen, eta, horretarako, aditu askoren ekarpenak jaso zituen: soziolinguistenak, udaletako zein beste administrazio batzuetako teknikariak, besteak beste. Aurrera begira, abiatutako lan honi jarraipena emateko asmoa du. 2011n bigarren ebaluazioari ekingo dio. Izan ere, ziklo politiko bakoitzean hizkuntza politikak aztertzeke asmoa du Kontseiluak, azterketaren bitartez, udalek aplikatzen dituzten hizkuntza politikan dauden hutsuneak detektatu ahal izateko. Hutsune horiek agerian geratuko direnez, udaletako arduradunek hizkuntz politika egokiak gauzatzeko hutsune horiek gainditzea beharrezkoa izango da.

2005. urtetik aurrera, Euskal Herriko ehundik gora herritan egin da ebaluazio hori, ondo egindakoak txalotzeko, gaizki egindakoak detektatzeko eta aurrera begira udalek euskararen aldeko neurriak har ditzaten presionatzeko. Udal horien guztien arteko sailkapenean, Altzo 5. postuan dago, Anoeta 6.ean, Aduna 8.ean, Tolosa 22.ean eta Villabona 40.ean.

Emaitzak baloratzeko, Kontseiluak eta UEMAK prentsaurrekoa bateratua egin dute. Kontseiluak, Xabier Mendiguren idazkari nagusiaren ahotik, UEMAKo udalek lortutako emaitza onak nabarmendu ditu; izan ere, sailkapeneke aurreneko 12 postuetan UEMAKo udalak daude. Jon Bollar UEMAKo lehendakariaren aburuz, zenbakien atzean UEMAKo udalek hizkuntz politika bateratua gauzatzeko kon-



Udal horien guztien arteko sailkapenean, Altzo 5. postuan dago, Anoeta 6.ean, Aduna 8.ean, Tolosa 22.ean eta Villabona 40.enean.

Xabier Mendigurenek, halaber, elkarlanaren garrantzia azpimarratu du; Kontseiluaren izpiritua bertiere elkarlanean aritzea baita: administrazio guztiak zein bestelako eragile sozial, ekonomiko eta politikoen. Horrexegatik ere, dinamika honen baitan, Kontseiluak hizkuntza politika hobetzeko udalerrietako erakundeekin elkarlana lortzen saiatzen ari da. Hor kokatzen dira berriki aurkeztutako 25 udalekin sinaturiko hitzarmenak eta ekainean UEMA-rekin sinatutako hitzarmen berezia.

UEMAko udaletan egin dako neurketei dagokienez, Xabier Mendigurenek adierazi du emaitza hauek argiki uzten dutela UEMAko herrietan aplikatzen den hizkuntza politika, oro har, egokia dela. Halaber, gaineratu du Kontseiluaren webgunean sarrera berezi bat dagoela (www.kontseilua.org), eta hor kontsultatu daitezkeela herri bakoitzaren emaitzak edo herrien arteko alderaketak egin. Web gune horretan, bestetik, udalerrien hizkuntza politikaren inguruan bestelako informazioa ere eskainiko du Kontseiluak.

Kultur ekitaldiak



Azaroak 12 Idoia Sanchez

Berastegi
Muñagorri Eskolan 17:00etan.
Elduain
Kultur Etxean 18:00etan.



Azaroak 19 Idoia Sanchez

Altzo
17:30ean liburutegian

Literatura Hitzaldia

Azaroak 24: Unai Elorriagaren hitzaldia **Londres kartoizkoa** da bere azken eleberriari buruz. Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, 20:00etan.



Durangoko Azokara joateko autobusa

Abenduak 5: Goizeko 9:00etan irtengo da autobusa Tolosako tren geltokitik. Itzulera, 19:00etan izango da. Izen ematea Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa Etorbidea 6). Prezioa: Galtzaundiko bazkideek 9 euro; bazkide ez direnek 12 euro.



Bertsolari Txapelketa Nagusi- ko finalera joateko autobusa

- Abenduak 13: Autobusa goizeko 8:30ean irtengo da Tolosako tren geltokitik. Finala 11:00etan hasiko da eta 9:30ean zabalduko dituzte BECeko ateak. Itzulera, saioa amaitzean izango da (20:30ak inguruan). Izen ematea Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa Etorbidea 6). Prezioa: Galtzaundiko bazkideek 9 euro; bazkide ez direnek 12 euro.



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako Landagipuzkoa 32 diru-laguntza programaz baliatuko dira 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten Tolosaldeko herriak

Inbertsio handiak herri txikietan

Leire Zubeldia

1.000 biztanle baino gutxiago dituzten landa-eremuko herriak berrindartzeko apustua egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Baserri bideak, ur-hornidura, azpiegitura balioanitzak eta etxebizitzak egiteko Landagipuzkoa 32 diru-laguntza programa jarri du martxan. Diru-laguntzak Etorlurrek kudeatzen ditu, eta eskualdeko 16 herriek aurkeztu dute euren proiektua. Kasu gehienetan, egitasmo bakoitzak duen aurrekontuaren %80a finantzatu da programaren bidez. Tolosaldeko herri txikiek euren bizi kalitatearentzat oso garrantzitsuak diren proiektuak gauzatuko dituzte programa honi esker; diru-sarrera urriengatik, euren kabuz inoiz egin ezingo lituzketenak. Galtzaundiren 309 alean Abaltzisketan egingo duten eraikin balioanitza ezagutu genuen. Hurrengo erreportaian gainontzeko herrietan gauzatuko diren proiektuak dituzu.



Galtzaundi 09ko azaroak 6



Albiztur

Baserri-bideak konpondu eta ur hornikuntza

Landagipuzkoa 32 programaren bidez 110.000 euro jaso dituzte. Diru kopuru hau herriko azpiegiturak berritzeko erabiliko dute.

Alde batetik, Urtume baserriko bidea konpondu dute. Olatza baserrira doan bidea ere berritzekotan dira.

Diru-laguntzaren zati handi bat Santa Marina auzoko ur-hornikuntza sarea eratzeko erabili dute. Orain arte, auzokoek berriak egindako zulo batetik hartzen zen ura. Orain, Udalak ur depositu bat egin du, eta honekin batera, ura baserrietara eramateko sarea.

Alkiza

Baserri-bideak konpondu eta Don Juanena eraikinaren birgaitzea

Bi fasetan gauzatuko dituzte Alkizan Landagipuzkoa 32 programak bideratutako inbertsioak:

Lehenengo fasean, Apeztegia eta Sarobe baserrietara joateko bideak konponduko dituzte. Sarobe baserrira doan ur-hornikuntza sarea ere berrituko dute. Lan hauetarako 43.700 euroko diru-laguntza eskuratu dute.

Bigarren fasean, udaletxearen ondoan dagoen Don Juanena etxea birgaitzeko proiektua gauzatuko dute. Eraikin honetan eguneko zentroa, gela balioantza eta bestelako zerbitzuak jartzeko asmoa dago. Baina aurretik beharrezkoa da eraikina birgaitzea. Horretarako 462.400 euro bideratuko ditu programak.

Altzo

Aisialdirako lokalak eta frontoiko dutxak zein aldagelak

Eskola egin zenean, lur eremuaren ezaugarriengatik behar baino gehiago eskabatu behar izan zuten. Eskola ondoan soto moduko bat geratu da. Leku honetan aisialdira bideratutako lokalak egiteko proiektua gauzatu du Udalak. Lokal hauetan eskolako ikasleentzat eta herritarrentzat gimnasia egiteko tokia egokituko dute batetik. Bestetik, gazteentzako aisialdirako gune bat ere jarriko da. Azkenik, frontoiaren atzean, dutxa eta aldagela batzuk egokituko dituzte.

Proiektua onartuta dago eta 2010ean hasiko dira lanak. Landagipuzkoa 32 programak bideratutako diru laguntzaz ez ezik, Eusko Jaurlaritzako Erein programaren bidez ere finantzatu da. Lehenak, 332.000 euro emango ditu, eta gainontzeko 145.000 euroak Ereinek jarriko ditu. Guztira, 500.000 euroko aurrekontua du proiektuak.

Amezketara

Fernando Amezketarra Herri Zentroa

Eraikin balioantza egingo du Amezketara, herriko hainbat behar asetuko dituena. Ongizate eta Kulturari begira zerbitzu ezberdinak eskainiko ditu eraikin honek. Ongizateari dagokionean, eguneko zentroa eta etxe tutelatuak jarriko dituzte. Kultura mailan berriz, ekintza ezberdinak egiteko areto nagusia, liburutegia eta KZ gunea egokituko dira, beste zenbait gela balioantzekin batera.

Zerbitzu guzti hauek Aierbenea edo Juan Lopez-enea etxean jarriko dituzte. Bi fasetan gauzatuko dute proiektua: Lehenengo fasean, eraikina erosi, solairu bat gehiago altxa eta lehen solairuan joango den areto nagusia egingo dute. Eraikinaren erosketa egin da jada, eta lanak egiteko lehiaketa ere martxan dago. Urtea amaitu baino lehen hasiko dira lanak, eta urte betteren buruan amaitzea espero da. Bigarren fasean, garatuko



Ikaztegiaren eraikin balioantza egin nahi dute eskola aurrean.

dira ongizate eta kultur alorreko gainontzeko zerbitzuen egokitzapena. Horretarako, datorren legegintzaldira arte itxaron beharko da ziurrenik, inbertsioa handia baita.

Lehenengo fasea gauzatzeko, 2.200.000 euro jasoko ditu Amezketako Udalak.

Belauntza

Lokal balioanitzak, bi-deak, urbanizazioak eta ur-hornidura

Belauntzan lan ugari egingo dituzte diru-laguntza programaren finantzaketarekin:

Alde batetik, Martintxo etxearen behelaldeko lokala birgaitzeko proiektua aurkeztu dute. Bertan, erabilera anitzeko gela bat egokituko da. Lan honetarako 140.601. euro jasoko dituzte. Bestetik, eliza ataria eta inguruko eremua urbanizatuko dute. Honen finantzaketa 89.029 eurokoa izango da. Goikoetxea auzoan ere urbanizazio lanak egingo dituzte, 37.342 euroko diru-laguntzarekin.

Finantzaketa osoaren beste zati bat Iturregi inguruko ur-hornidura sarea erakitzeko erabiliko

dute. Izan ere, inguru horretan ukuiluak daude, eta baita etxe bat ere. Azpiegitura hau eraikitzeko, 45.301 euro jasoko dituzte.

Azkenik, Etxeberri granjako bidea konponduko dute. 76.458 euroko aurrekontua dute horretarako.

Berastegi

Udaletxea berritu

Berastegin Udaletxea berritzeko erabiliko dute programak bideratutako diru-laguntza. Egitasmoa onartuta dago, baina proiektua onartzea falta da, oraindik ez baitago guztiz definituta. 2010. urteko bigarren erdira arte lanak ez direla hasiko uste dute. Landagipuzkoa 32 programak 800.000 euroko diru laguntza emango du.

Bidegoian

Ur hornidura sarea eta Goiatz-ko frontoia

Bidegoian ur-hornidura sarea berritzeko erabiliko dute finantzaketaren zati bat. Fase ezberdinetan banatu dute zeregin hau, eta une honetan Etorlurrek

lehenengo fasea onartzeko zain daude. Azpiegitura hau hobetzeko 542.670 euro jasoko dituzte.

Finantzaketaren beste zatia erekin Goiatz-ko frontoia eraberritu nahi dute. Behin betiko proiektua oraintxe ari dira amaitzen. 377.609 euroko aurrekontua du lanak.

Elduain

Jolas-gunearen konponketa eta urbanizazioa

Bi proiektu txikitan banatu behar dute diru-laguntza:

Alde batetik, egoera txarrean dauden frontoia eta futbol zelaila konpondu behar dituzte. Bestetik, Ergoien bideko urbanizazioa amaituko dute, bidean zehar espaloia jarritz. Bi lanetarako 80.000 euro jasoko dituzte.

Hernalde

Plazaren urbanizazioa, frontoia eta bideak

Hernalden hiru lan ezberdinetan banatu dute diru-laguntza: Lehenik, plaza urbanizatuko dute. Proiektu hau gainera onartuta dago, eta aurten hasiko dira lanak. Gipuzkoako Aldundiaren programatik aurrekontuaren %90a finantzatuko da, 140.057 euro. Aurrekontu osoa, 155.619 eurokoa da.

Bestalde, frontoia konpondu eta Maioz-etik Tomasenea base-rrira arteko bidea zabaltzeko asmoa dute. Azken hau oso estua da, eta bertatik gero eta trafikoa gehiago ibiltzen denez, eraberritzea beharrezkoa ikusten dute. Bi proiektu hauek 2010ean egingo dira.

Ikaztegieta

Bideak eta eraikin balioanitzak

Ikaztegieta azaroan hasiko dira Landagipuzkoa 32 programak finantzatutako lehenengo obra egiten. Beidakar baserri-herriko ur depositarioan doan bidea berrituko dute. Horretarako, 67.000 euro jaso dituzte.

Herriarentzat oso garrantzitsua izango den azpiegituraren aurre-proiektua ere aurkeztu dute, zati bat behintzat programa honen bidez finantzatu dadin: Udalak eraikin balioanitzak egin nahi du Ikaztegieta eskolaren aurrean, (gela prefabrikatuak dauden tokian). Bertan, Udaletxe berria egokitu nahi dute, baita gizarte zerbitzua, eta bestelako erabilerak izango dizuten gela zein aretoak ere. Inbertsio potoloa denez, eta oraindik aurre-proiektua bakarrik aurkeztu dutenez ez dakite zenbateko aurrekontua izango duen, ez eta noiz hasiko diren lanak ere.

Leaburu

Udal ikerketa, bideak eta gela balioanitzak

Herriko beharrian ezberdinak asetzeko bideratu dute Leaburun Aldundiak emandako diru-laguntza:

Aurtengo urtea amaitu baino lehen, udalerriko azpiegituraren egoerari buruzko ikerketa bat egin behar dute, batez ere ur-hornidura sarea nola dagoen jakiteko, eta horren gainean erabaki bat hartzeko. 37.000 euroko finantzaketa eskaini die Aldundiak

Bide-azpiegituratara joango da diru-laguntzaren beste zati




Altzon eskola azpian geratutako sotoa baliatuz gimnasioa egingo dute.

bat: Artetxetik Aranzastira joateko bidea egin behar dute. Honekin batera, Agerre base-rrira doan bidea ere konponduko dute. 46.000 euro inguruko finantzaketa jasoko dute.

Bestalde, gela balioanitzak egingo dituzte: Bat, gaurko gaztegunea dagoen lekuan, eta bestea lehen gizarte zerbitzua zegoen tokian. Azkenik, liburutegi azpiko sotoan areto nagusi bat egokituko dute herriko ekintza ezberdinak egin ahal izateko. Lokal hauek egiteko 350.000 euroko kopurua jasoko dute.



 Belauntzan eliza ingurua urbanizatuko dute besteak beste.


Orendain

Eraikin balioanitzak

Eskolapioen eraikina bota eta etxe-bizitzak egingo dituzte Orendainen. Hori aprobetxatuz, Udalak eraikin balioanitzak eraiki nahi du. Eraikin honetan haur-eskola jartzeko asmoa dute. Horrekin batera,

hirugarren adinekoentzako gunea ere egokituko dute. Ez da eguneko zentroa izango, gauza ezberdin bat baizik. EHU eta URKOA ikerketa bat egiten ari dira zerbitzu horren nondik-norakoan gainean. Gela balioanitzak eta liburutegi bat ere izango lituzke eraikinak.


Une honetan proiektua

prestatzen ari dira eta urtarri-rilerako aurkeztu nahi dute. Landagipuzkoa 32 programaren finantzaketaz gain, Eusko Jaurlaritzako Erein programatik ere diru-laguntza jasotzea beharrezkoa izango da eraikin hau egiteko. Jaurlaritzan egin dute eskaera, eta erantzunaren zain daude.. 

ZETA^S_L

**MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219





**BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIA**

www.txapelketanagusia.eu

Azaroak 14, larunbata 17:30ean
Usabal kiroldegia - TOLOSA

IRANI GURRUTANGA, ANHOLA AGUIRREZALDEGI, IGOR ELORTZA,
LOLUE ALBERDI, SUSTRAI COLINA, IKER ZUBELDIA

Azaroak 18, igandea 17:30ean
Beltzenia pilotalekua - HENDAIA

JULIO SOTO, JONE LUIS, JON MIVA,
AMETS ARZALLUS, AITOR SARRIEGI, ONINTZA ENBETA



euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com



Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



TAO sistemari buruz dituzten zalantzak argitzeko alkatearengana joko dute herritarrek

TAO sistemak zalantza ugari sortu

12 Ezker Abertzalearen, herritarren eta merkatarien kritikak jaso ditu herriko zenbait kaletan TAO (Trafiko eta Aparkemendurako Ordenamendua) sistema jaritzeko udalaren ideiak. Urriaren 21an batzarra egin ondoren, herritarrek Udaletxera jo zuten argibide bila. Alkatearen erantzuna tinkoa izan da: Urtarrilean hasiko dira TAO sistemarekin. Herriko eragileak urriaren 28an berriro batzartu ondoren, udal ordezkariekin azken bilera bat egitea erabaki dute. Bertan jasotako erantzunaren arabera baloratuko dute TAOren aurkako ekimenak martxan jarri behar ote diren edo ez.

Erredakzioa

“TAO sistema aparkamendu arazoarentzako irtenbiderik zentzuzkoena da. Kritikek ez dute funtsik, izan ere, sistema oraindik ez da ipini eta ezinezkoa da zein emaitza izango dituen jakitea”. Horrela erantzun die Txelo Romeo Ibarako alkateak TAO sistemaren aurkako kritikei. Uztaileko azkeneko plenoan erabaki zuten TAO sistema jartzea, Ezker Abertzaleak salatu duenez, “mugikortasun azterketaren emaitzak jaso baino lehen”. Jada, TAO sistema kudeatuko den enpresarekin kontratua sinatua du Udalak. Urtarrilean jarriko dute martxan. Alkateak Udalera hurbildu diren herritar eta merkatariei esan dienez sei hilabeterako froga egingo dute. Kontua da, enpresa kudeatzailearekin 2 urteko kontratua sinatu dutela. Udalaren jarrerak eta OTA beraren eraginkortasunak zalantzak eragin dizkie herritar eta merkatariei: Zer gertatuko da frogako sei hilabeteak igaro eta gero? OTA eremua zabalduz joango al da pixkanaka? Galdera asko azaldu ziren Ezker Abertzaleak deituta, hilaren 21ean jubilatutxan egin zen herri-batzarrean. OTA jarri behar duten eremuko bizilagunak, beste auzoetan bizi diren herritarrek eta merkatariek elkartu ziren bertan. Alkateak ez zien argibiderik eman. Urriaren 28an egin dako bigarren batzarrean berri ere udal ordezkariekin biltzea erabaki zuten. Oraindik ez dute bilkura hori egiteko eguna zehaztu. Baina bertan jasotako

inpresioen arabera izango da herritarren erantzuna.

Herritarren iritzia, garrantzitsua

Ezker Abertzalea Ibarren aparkalekuekin dagoen arazoaz jabetzen da, eta honi konponbide bat eman behar zaiola uste du. “Baina ez dugu uste, TAO sistemak ezer konponduko duenik”. Udaletik kanpo egotean, eta baliabiderik ez izatean, eztabaida publiko bat sortu nahi izan zuten; hasteko, herritarrek informatu, eta denen artean Udalari alternatiba bat eskaintzeko. “Ez gaude ados TAO sistemarekin, ezta ideia hau gauzatzeko Udalak erabili dituen moduekin ere. Herritarrei horrenbeste eragiten dien gai baten gaineko erabakia hartu dute hauei ezer kontsultatu gabe”.

Arazoaren iturria

Aparkalekuen urritasunak ibartarrak kaltetzen ditu, baina udal ordezkariaren ustez arazoaren iturria ez dago Ibarren. “Lanegunetako ordu zehatz batzuetan ez dago aparkatzeko tokirik eta herriko pertsona guztiak ez daude langabezian, hortaz, galdera ondokoa da: nork eta zertarako erabiltzen ditu aparkaleku horiek? Ibarra ez dago prest beste herri batzuetatik datozen autoen doako aparkalekua izateko”, azaldu du alkateak. Ezker Abertzaleko kideek bestelako irakurketa egiten dute: “Egia da Tolosan lan egiten duten pertsona askok Ibarren aparkatzen dutela autoa. Baina benetazko arazo



tu ditu **ib**artarren artean

6 hilabeteko proba egingo dutela esan dute Udaletik, kontua da 2 urterako kontratua sinatu dutela enpresa kudeatzailearekin

herrian daukagu: Ibarran errol-datuta dauden autoak baino 400 aparkaleku gutxiago ditugu". Alkateak prentsa-oharrez gogorarazi du, legegintzaldi honetan 200 aparkaleku egin dituztela, eta beraz, TAO sistema jarri aurretik arazoari aurre egiteko bestelako saiakerak ere egon direla.

Errotazio ezberdineko bi TAO eremu jarriko dituzte: 1. eremua Euskal Herria kaleko 1 eta 27 zenbakien artean, kale honen

atzealdea 7 eta 17 zenbakien artean eta J. Gayarrerako igorran ezarriko da. Idoiaga kaleko 3 eta 13 zenbakien arteko eta Beko Bideko 2 eta 6 zenbakien arteko eremuek ere errotazio sistema bera izango dute. Gune urdin honetan gehienez bi orduz aparkatu ahal izango da eta tarifa 1,50 eurokoa izango da. 2. eremuak Euskal Herria kalea jasotzen du 37 eta 41 zenbakien artean, eta baita kale honen ondoan, 14 zenbakian, osasun zentroaren parean. Gune hau gorria izango da, errotazio handiagoa izango duelako. Hemen, gehienez ordu betez aparkatu ahal izango da 1,50 euroren truke. Aipatutako kaleetan bizi diren bizilagunek gune urdinean doan aparkatu ahal izango dute eta nahi beste denboraz, baita bertan komertzioaren bat duten

merkatariek ere. Gune gorrian aparkatzeko ordea tarifa ordaindu beharko dute gainontzekoek bezala, eta soilik ordu betez aparkatu ahal izango dute.

Sistemaren ezaugarriengatik, Ezker Abertzaleak uste du, ibartarren artean diferentziak markatuko dituela. Herritarrak ezberdin tratatzeaz gain, aparkalekuen arazoa Euskal Herria kaletik beste auzoetara mugituko da. "Hau ikusita, azken helburua TAO sistema herri guztira hedatzea dela pentsa dezakegu", diote.

Zalantza ugari daude argitze-ko. Ikusiko da udal ordezkariak herritarren galderei erantzuna ematen dieten. Itxura denez, zalantzan ez dagoen gauza bakarra, urte berriarekin batera Ibarrak TAO sistema martxan jarriko duela da.

ANTZA

Beti Nahi
galekoa

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Dokumental batean landa eremuan dituzten kezka eta arazoak kontatu dituzte emakumeek

Landa eremuko emakumeak

Agian ezagun egingo zaizkizue Arantxa Sorrondegi, Mari Cruz Uranga, Pilar Tolosa eta Axun Zubeldiaren aurpegiak. Landa eremuko emakumeei buruzko dokumentalean parte hartu dute. Ikus-entzunezkoa urriaren 15ean aurkeztu zuten Bedaion, eta urriaren 24 eta 31ean Tolosako Kultur Etxean egon zen ikusgai. Orain Galtzaundiren bidez zabaldu nahi izan dute euren ahotsa, baserriko emakumeen aldarria: "kalean bizi direnak bezalakoak gara".

Erredakzioa

Urkizu, Aldaba, Aldaba Txiki eta Bedaioko emakumeek gus-tura hartu zuten Landa Eremuko Emakumeen diagnostia egitea helburu zuen dokumentalean parte hartzeko proposamena. "Oso ondo hartu genuen ideia. Jendeari erakutsi nahi genion goi-alde hauetan ez gaudela galduta, kalekoak bezala, badakigula ondo bizitzen", azaldu du Arantxa Sorrondegi urkizuarra. Mahai inguruan bildu diren Mari Cruz Uranga, Axun Zubeldia eta Pilar Tolosa aldabarrak ere ados agertu dira baieztapen horrekin. "Gezurra badirudi ere, batzuk harritu egiten dira baserrian bizi zarela esaten diezunean", "kalean bizi direnek pentsatzen dute, landa eremuan atzeratuta bizi garela". Topiko guzti hauek apurto nahi dituzte solaskideek.

Mari Cruz senarrarekin bizi da baserrian. Seme-alabek bertan bizitzen geratzeko aukerarik ez zuten izan, eta egun kalean bizi dira. Axun semea eta errainarekin bizi da. "Hauek ume txiki bat dute. Hura zaintzen pasatzen dut goiza. Arratsaldean, baratzen lan pixka bat egin eta era honetan joaten zait eguna". Pilar-ek ez du orain lehengo lanik. Beraiek eramaten zuten Aldabako tabernaren martxa. Orain itxita dago. Semea eta erraina beraiekin bizi dituzte. Arantxa da denetan gazteena. Senarraren gurasoekin eta seme-alabekin bizi da. Guztira zortzi dira etxean. Bera da, ezkondu ondoren etxetik kanpo lan egin duen bakarra. "Senarraren gurasoak oraindik ondo daude osasunez, eta beraiek gai diren bitartean kanpoan lan egin dezaket". Pilar, etxean zuten tabernaren kargu egiten zen. Mari Cruz eta Axunek berriz, etxean geratu behar izan zuten, senarra etxetik kanpo lanean zegoen bitartean, norbaitek egin beharko zituen eta baserriko eta etxeko lanak.

Baserrian, gizonak bezala

Egun baliabide gehiago daude, eta baserriko lana xamurragoa da. Gainera, etekinik ezean, lana ere murriztu egiten da. Mari Cruz, Axun eta Pilarrek etxeko lur-sailak garbi mantentzeko buru gutxi batzuk, zenbait oilo eta oilasko, eta baratza dute. Aldiz, Arantxaren etxean 40 buru dituzte. "Udaran izaten da lan gehien, belarra sartu behar denean", dio. "Bai, baina, horretarako ere makinak daude gaur egun. Guk segarekin belarra moztu, gurdian kargatu

eta sardeka betetzen genuen belar-zuloa", jarraitu du Axunek. "Gizona bakarrik motz geratzen da, eta emakumeak gizonak adina lan egin du baserrian", borobildu du azkenean Pilarrek. Adibide ugari jarri dituzte. "Gure seme-alabak lanera joaten ziren. Etxean ere laguntzen zuten, baina haiei lasaiago uzteagatik nahiago izaten nuen nik jardutea", azaldu du Mari Cruzek. Axuni ere antzeko zerbait gertatzen zitzaion. Senarra zortzi orduz kanpoan lanean aritu eta etxera etortzean hari laguntzera behartuta ikusten zuen bere burua. "Senarra sies-tara joaten zenean, ni ontziak garbitzen geratzen nintzen. Lanak amaitu ondoren oheratzera joan eta hanka bat sartu orduko esaten zidan senarrak: *ni belarra jiratzera noa*, eta altxa egin behar!". Pilarrek, senarrak lo igarotzen zuen ordu betetxoan baliatzen zuen atzeratutako lanak egiteko. "Etxea txukuntzen ibiltzen nintzen, senarra



topikoak apurtuz

jaikitzen zenerako dena garbi egoteko, lapurrak bezalaxe!”

Emakumearen lana, ikusezina

“Txikia nintzenean bi solairuko etxe batean bizitzearekin egiten nuen amets. Orain amesten nuen etxe handi horietako batean bizi naiz, eta 50 metro karratu dituzten horietako bat hartuko nuke gustura”, esan du Arantxak garbiketa lanei erreferentzia eginez. Ingurukoek arrazoia eman diote berarekin identifikatuta. Baserrira garbi mantentzea zaila da. “Gainera, erraz zikintzen dira bazterrak, nahikoa da ukuiluan edo baratzen ibilitako botekin barrura sartzea”, azaldu du batek. “Nik nire semeari esan izan diot askotan: Zenbat kostatzen zaizu botak kanpoan kentzea? Ez al duzu ikusten atzetik norbaitek etorri behar duela zuk zikindutakoa garbitzera?”, gaineratu du beste batek. Euren ustez, emakumearen lana ez da ikusten, edo ez dute ikusi nahi, b i e t a k o bat. “Gizona belarra

mozten aritu bada, ikusten da non moztu duen, zenbat moztu duen. Gu berriz, goiz guztia bazkaria prestatzen egon ondoren, ordu laurden batean jaten da”. Baserriko emakumeei ez ezik, kaleko emakumeei ere gauza bera gertatzen zaiela ikusten dute. “Eskerrak gaurko gazteak etxeko lanak banatzen hasi diren”.

Garraioa oztopo bakarra

“Gu oso gustura bizi gara hemen. Ez genuke ezerengatik aldatuko”, diote argi eta garbi. “Askatasun eta lasaitasun ederrean bizi gara. Baserriko atea zabalik utzi dezakezu inor sartuko den beldurrik gabe. Haurrak ere libre ibili daitezke jolasean, inongo arriskurik gabe”. Bizi-kalitatea ona da landa eremuak eskaintzen duena, baita elikaduraren aldetik ere. “Barazkiak geuk ekoizten ditugu, jaten dugun haragia ere bai... Larunabatatzen Tolosara jaisten garenean leka-leak, pasta, xaboiak eta horrelakoak besterik ez ditugu erosi behar izaten”. Hori bai, behin herrira jaitsita aste osorako

erosketak egiten dituzte. “Astean zehar zerbait falta bazaigu, hori gabe moldatzen gara. Alidz, kalean biziko bagina, beheko dendara jaitsi eta erosi egingo genuke”.

Landa eremuan bizitzeari aurkitzen dioten oztopo bakarra garraioa da. Aldaba, Urkizu eta Bedaion ez dute garraio publiko zerbitzurik. Axunek, Mari Cruzek eta Pilarrek, seme-alaben autoekin moldatu behar izaten dute. Baina hauek lanera joaten dira eta ezin dute gurasoei begira egon. “Adibidez, medikuarenean txanda hartzeko, aurretik semeari edo alabari galdetu behar izaten diogu ondo noiz datorkion jakiteko”. Bestela taxia ordaindu behar izaten dute, “eta hori garesti ateratzen da”.

Aspalditik egiten duten eskaera da udalak lagundutako Taxi zerbitzu bat jartzearena. “Ezaguna da bono-taxi sistema. Horrelako zerbait jartzea oso ondo

Gizona bakarrik motz geratzen da eta emakumeak gizonak adina lan egin du baserrian

legoke. Udalak zerbitzuaren zati bat ordaindu dezala eta guk beste bat. Ez da beharrezkoa egunero taxia jartzea, baina bai astean behin edo bitan. Egun jakin horietan garraioa daukagula jakitean, medikuarenean edo ileapaindegian lasai txanda hartu dezakezu”. Tolosako udalari behin eta berriz egin diote eskaera bera. Orri hauek baliatu nahi izan dituzte beste behin ere euren aldarria entzunarazteko.

Mari Cruz, Pilar, Arantxa eta Axunek parte hartu duten dokumentala azken bi larunbategian ikusgai egon da Tolosako Kultur Etxean. Auzo bakoitzean ere egingo dute ikus-entzunezkoaren aurkezpena. Hemen esandakoak zabalago entzun nahi badituzue, horratx aukera. 6



2010ean amaitu nahi dute 14 zortzimilakoekin

“Lasterketa badago, baina lasai joango gara”

Asier Izaqirre

Leire Zubeldia

Oargiko rokodromoan eskalaten hasi zenetik ikasiz joan da Asier Izaqirre tolosarra. Egun, eskarmentu handiko alpinista eta eskalatzailea da. Horregatik aukeratu zuen Edurne Pasabane 14 zortzimilakoak egiteko erronkan bere laguntzaile gisa. Shisha Pangma eta Annapurna falta dituzte 14ak osatzeko, eta bien bitartean, Oh Eun-Sun korearrak udazken honetan igo nahi du falta zaion zortzimilako bakarra, Annapurna. “Alpinismoa esperientzia da” dio Asierrek, eta esperientziarengatik daki, presa ez dela mendirako lagun ona. Lasai joango dira beraz. Eta behin 14 gailurrak zapaltzean, mendi elurtuetatik arkaitzera igaroko da Asier. Irrikitan dagoela aitortu du.

Noiz igo zinen azkenekoz Uzturrea?

Duela 28 egun gutxi gorabehera. Eskalatzeko asko erabiltzen dut Uzturre. Egunkaria itxi zutenean, Uzturreko paretean bide bat ireki genuen. Maiz ibiltzen naiz hor.

Shisha Pangmatik etorri berriak zarete, baina gailurra zapaldu gabe. Ze sentazioekin itzultzen zarete horrelakoetan?

Jendea gailurra egin zain egoten da. Baina ez Shisha Pangma eta ez Txindoki, eguraldi txarra dagoenean ezin dira igo. Nik hori

aspaldi ikasi nuen. Mendian gauzak okertzen direnean, buelta eman eta behera joan behar da. Mendia hor egongo da. Gainera, Shisha Pangmako espedizioak oso amaiera txarra izan zuten. Zoritxarrez, gure lagun italiar bat bertan geratu da. Orduan konuratzzen zara, mendia oso gauza serioa dela, eta ondo egin genduela atzera bueltatzeko erabakia hartzean.

Nola eragiten dizuete mendian gertatzen diren ezbeharrek?

Ofizio edo afizio honek oso gauza onak eta oso gauza txa-



“Izugarrizko gogoa dugu kamararik gabe eta presiorik gabe arkaitzean eskalatzeko”.

17

rrak eman dizkit. Txarrenak, heriotzak dira. Nire bost lagun hil dira mendian. Zoritxarrez, horietako hiru nire aurrean hil ziren gainera. Duela bi urte istripu bat izan genuen Tallon-en. Bost joan ginen eta Edurne eta ni bakarrik itzuli ginen. Mendizaleok onartua daukagu arrisku hori. Mendira arriskua ikusi gabe joaten dena gaizki doa. Zoritxarrez, arrisku horrek heriotza ekartzen du. Halakoetan, gertatua irentsi eta aurrera egin behar izaten da.

Shishako espedizioa ez ezik, zuen kanpamendua ere eraman zuen haizeak. Nola geratzen da bat nekeak jota kanpamendura iritsi eta ezer ez dagoela ikustean?

Himalayako mendiak oso landuta egoten dira. Kanpo bat, bi, hiru... ondo jarrita daude gure gorputzak altuera horietara egokitzeke. Kasu honetan, behetik zuzenean gora joateko asmoa genuen. Gure denda 6.200 metro tara jarri genuen, han, gure gorputza egokitu ahal izateko. Haize bolada handiak sortu

ziren, eta horrek egun batzuk oinarritzko kanpamenduan pasatzera behartu gintuen. Eguraldiak hobera egin zuenean abiatu ginen gora. Zortzi edo bederatziko orduko lana egin eta gero, denda jarri genuen lekura iritsi eta ez zegoen ezer. Honek batzuen negarrak eta besteen garrasiak eragin zituen. Momentu hartan ikusi genuen gure espedizioa amaituta zegoela. Lo zakua, arropa, jatekoa, denda... Hori dena galdu ostean oso zaila da inprobisatzea. Behin baino gehiagotan gertatzen dira horrelakoak. Onartu eta etxerako bidea hartzea beste erremediorik ez dago.

Denei geratu zaizkigu buruan Kangchenjungako irudiak. Nola bizitu zenuen espedizio hura?

Oso espedizio berezia izan zen. Gailurrera arte oso ondo joan zen dena. Baina jaisterakoan asko luzatu zitzaigun eguna. Horrelako mendietan desgastea oso handia da eta Edurneri ahuleziak eman zion. Oinarritzko kanpamendura iritsi

zuzenean grabatu ziren irudi horiek. Irudiak gogorrak dira, baina han geundenontzat egoera ez zen hain larria. 2.000 metroko pareta batean gertatu izan balitz larriagoa izango zen. Egund batean jaitsi beharrean, bi edo hiru egunetan jaitsiko ginen eta kitto. Espedizio honi buruzko balorazio ona egiten dut nik. Zabaldu ziren irudi haiek eman diote kutsu negatibo hori.

Hedabideek egora normal bat muturreko bilakatzen dute...

Bai, bai. Pentsa: 50 egun ematen ditugu basean. Azkenean, abiatu egiten gara eta gailurra egiten dugu. Oinarritzko kanpamendura iristean denak gaude oso nekatuta. Orduan, beheko besarkada horrek, kasu honetan Edurne eta nire artekoak, asko saltzen du. Medioek asko handitzen dituzte gauzak, baina mediorik gabe ez dago sponsor-ik. Dena dator pakete berean.

Oh Eun-Sun korearrak Edurneri aurre hartu dio 14 zortzimila-koak egiteko lasterketan. Zuek

lasterketan jarraituko duzue azken gailurrera arte, edo jada ez dago presarik?

Niretzat badago lasterketa bat, eta horregatik gaude mundu honetan. Baina mendian lasterketak oso arriskutsuak izaten dira. Nik esaten diot Edurneri: Agian bigarrenagoa izango zara, baina garrantzitsuena bizirik egotea da. Jendeak ez du horrela ikusten. Gaur egun kirola kompetizioa da, eta soilik lehena egiteak balio du. Beraz, lasterketa bat badago, baina lasai joango gara.

Mendian hotz jokatzeko kostatzen da...

Nik adibide bera jartzen dut beti: Imaginatu Txindokiko azkeneko malda igotzen ari zarela buelta eman beharra. Gauzak hotz begiratu behar dira. Alpinismoa esperientzia da, eta guk horretan nahikoa esperientzia badaukagu. Askotan jokatu behar izaten dugu hotz erabakiak hartzeko. Mendia hor egongo da. Shisha Pangma ere hor egongo da. Lau aldiz saiatu gara igotzen.



"Mendia hor egongo da Shisha Pangma ere bai".

2006an eta azkeneko saiakera honetan hegoaldeetik egin dugu. 2007an eta 2008an iparraldetik saiatu ginen. Berez zortzimilako erraza da, baina guri kostatzen ari zaigu.

Udaberrian egingo duzue Annapurna igotzeko saiakera eta Shishako enegarren espedizioa...

Alex Chicon, Edurne eta ni hitz egiten aritu gara espedizio horien inguruan. Annapurna oso mendi arriskutsua da. Horregatik, bertan aklimatatzan ibili beharrean, lehenik Shisha Pangmara joango gara hau igotzeko asmotan, eta hemen aklimatatuko gara. Behin gorputza 8.000 metroko altuerara egokituta, Annapurna igoko dugu kolpe batez. Hori da gure asmoa.

Gailurrean denbora gutxi igarotzen duzue mendizaleek. Bidea helmuga baino garrantzitsuago den seinale?

Bai gorako bidea eta bai jaitzierakoa garrantzitsuagoak

dira. Gure helburua gailurra egitea da, baina 8.000 metro-tara egoteak bere arriskuak ditu. Normalean 20 minututik behera egoten gara. Nire harri-durarako, ordu eta erdiz egon nintzen 8.600 metro-tara dagoen Kangchenjungako gailurrean. Irudiak grabatzen eta lagunei laguntzen ibili nintzen. Baina hori salbuespena da. Osasunerako ez da batere ona horrenbeste denbora hor goian pasatzea.

Horrelako erronka bati aurre egiteko taldeko giroa oso garrantzitsua izango da. Nola moldatzen zarete zuek?

Horrelako mendi batean oso garrantzitsua da lagun onekin eta jende jatorrarekin egotea. Muturreko egoerak sor daitezke, eta bertan dauden kideekin konfidantzarik ez baduzu, edo elkarren artean pikeak badaude, espedizioa pikutara joaten da. Eskalatzea talde lan bat da. Lagunak egiten duen korapiloak baldintzatuko du nire bizitza.

Egoera honetan, ezinbestekoa da lagunarekiko konfidantza. Niretzat oso garrantzitsua da, bai hemen eta bai Himalayan, mendia lagunekin eta gustura egitea.

Nola prestatzen zarete espedizio hauetarako?

Edurne profesional hutsa da eta urte osoa ematen du espedizioetarako prestatzen. Nik urte erdia lanean igarotzen dut eta beste erdia mendian. Bate-tik gorputza zaintzen dut, eta bestetik, asteburuetan mendira joaten naiz. Sasoiko mantentzea eta esperientzia pilatzen joatea da kontua.

14 zortzimilako enegitaran Edurne da aktore nagusia. Baina, espedizioetan berari laguntzen ari zarenok ere erronka moduan bizi al duzue?

Alex, Latorre eta ni; hirurok egon gara Shishako gailurrean, beraz ez dugu hara igotzeko beharrik. Baina hirurok argi daukagu Edurnerekin gaudela. Edurne 14 handienak egiten munduko lehenengo emakumea izatea nahi dugu, eta helburu hori lortzen lagunduko diogu. Onartu beharra dago, guretzat ere aukera bat dela, gaur egun oso zaila baita mendiaz bizitzea, eta proiektu honek horretarako aukera eman digu.

Edurnek 14ak egindakoan zure bidetik jarraitu nahi duzula aipatu izan duzu. Nekatuta?

Egia esan bai. Edurneri askotan esan izan diot: "Ea noiz bukatzen dugun honekin, Yosemite-ra edo Perura joan eta beste lasaitasun batekin mendia egiteko". Espero dugu zortzimilakoekin 2010. urtean amaitzea. Mendia egiten jarraituko dugu, gure bizia baita. Baina gure modura eta guk nahi dugun lekura joango gara. Edurne eta ni arkaiztetik gatoz, eskalatzailak gara, eta izugarriko gogoia dugu kamararik gabe eta presiorik gabe eskalatzeko.

Oargi medi elkarteko kidea zara. Probatu al duzu rokodromo berria?

Bai. Atzo (urriak 22) izan nintzen bertan. Duela hamar bat

urte ni eta beste mendizale batzuen artean osatu genuen rokodromoaren lehenengo zatia. Hor hasi ginen eskalatzeko eta hainbat ikastaro ere eman genituen. Oargin berehakada handia gertatu zen, baina egoerari buelta eman diote. Gazte mordo bat sartu da, rokodromo handitu dute, irteerak antolatzen dituzte... Izugarriko martxa daukate. Poz handia ematen dit elkarrekin horrela ikusteak. Zoriontzeko moduko lana egin dute gazteek.

Zortzimilako enegitaran sukarra oso zabaldua dago. Zer dute zortzimilakoek zaspimila edo seimilako enegitaran?

Hamalau bakarrik daudela eta munduko gailurrik altuenak direla. Ez dute beste berezitasunik. Zer du Txindokik? Urtean 1.000 pertsona igoko dira bertara, eta Ausaz Gaztelura 10. Txindoki handiagoa da, besterik ez.

Nola ziurtatzen du etorkizuna menditik bizi denak?

Lehen galdetu duzu zer duten zortzimilakoek: Ba, mendiaz bizitzeko aukera. Zaspimilakoek ez dute saltzen. 2006. urtetik nabili Edurnek gidatzen duen proiektu honetan. Espedizio bat egin behar dudanean lanean kontratua eten eta gero jarraitzeko aukera ematen didate. Nik argi daukat aukera hau aprobetxatu egin behar dudala. Momentua disfrutatuko dut, eta gero gerokoak.

14 handiak amaitzean, zein da egingo duzun lehenengo gauza?

Badaukat proiektu bat. 2007an Cerro Torre eskalatzeko ari zela lagun baten senide bat hil zen, eta bidea hor geratu zen erdizka. Patagoniara itzuli eta Cerro Torre egiteko asmoa dut. Eskalatzeko material guztia zintzilik dudala ibiltzeko gogoia dut, hamakan lo egiteko. Pareta handietara itzultzeko irrikitan nago.



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Azaroan sartuta, neguko temperatura baxuak direla eta, hozten hasten gara eta gripeak ere gehiago izaten dira. Elikadura garrantzizkoa da bai hozte hauek aurrezaintzeko eta baita sendatzen laguntzeko ere. Elikagai batek ez digu gripea edo hotzeria sendatuko, baina gure sistema inmunitarioa indartzeko eta gure organismoko defentsak infekzio biral horri aurre egiteko lagungarri izan daiteke. Ondoren aipatuko ditugu lan honetan lagunduko diguten zenbait elikagai:

Koxk!

Bitaminak eta mineralak hotzari aurre egiteko

- **Fruituak:** Bitaminak, mineralak eta elementu fitokimiko antioxidatzaileak ditu, bai defentsak igotzeko eta bai hondakin sustantziak iraitzeko lagungarriak dira.

- **Barazkiak:** Fruituen eragin bera izateaz gain, odolaren arazketan lagungarriak dira, infekzioetan normaliki sortzen den azidotasun metabolikoa neutralizatzen dutelako. Gordinik hartu daitezke entsaladetan, zuku moduan, edo bere saldarekin prestatuak.

- **Baratxuria:** Antibiotikoa-
ren moduko eragina du eta defentsen eragingarria da. Birusei ere aurre egiten die eta gripearen ondorioz sortu daitezkeen arnas infekzio eta bronkitisak aurrezaintzen laguntzen du.

- **Propoleoa:** Erleek sortzen duten sustantzi naturala da, zenbait birusei aurre egiteko

egokia. Sistema inmunitarioa ere indartzeko erabili daiteke.

- **Selenioa:** Oligoelementu bat da, antioxidatzailea eta gorputzeko defentsen suspertzatzailea. Aurkitu dezakegu baratxurian, Brasileko intxaurretan, garagardo legamian, eta galorratzean.

- **C vitamina:** Sistema inmunitarioak birus horiei aurre egin diezaien beharrezkoa da. Naranja adibidez, oso egokiak dira, azido organiko eta flabonoideak ere badituelako, C bitaminaren lana hobetuz. Egokiak dira ere kiwia, guayaba eta grosella.

- **Zink:** Oligoelementu hau gripe eta katarroen iraupena mozteko erabili daiteke. Aurkituko dugu adibidez, sesamoan, fruitu lehorretan, olioan eta galorratzean.

Eta tenperatura baxuen aurrean, zergatik ez dugu denok hotza berdin sentitzen? Arrazoi

desberdinak daude; eta hoi-
arten, adibidez, termogenesia dago. Hau prozesu biokimiko bat da eta gorputzak sortzen duen beroari dagokio. Baina ez da pertsona guztietan berdin ematen. Kasu batzuetan, modu natural batetan, kontsumitzen diren gehiegizko elikagaiak erre eta bero moduan askatzen dira; beste batzuetan ordea, gorputzak bero moduan askatu ordez gantz moduan akumulatzen ditu. Izan ere gure gorputzean 2 motako ehun adiposoak ditugu: ehun adiposo arrea; termogenesiaren funtzioa betetzen duena, eta ehun adiposo zuria; (azalaren azpian kokatzen dena), isolatzaile gisa funtzionatzen duena. Honen ondorioz gorputz horrek ez du hainbeste bero sortzeko beharrik izango, sortzen dena ondo mantentzen baita. Aktibitate fisi-



koak ere bere eragina du bero metaboliko horren ekoizpenean, gure giharren lanaren ondorioz.

Beraz, badugu beste arrazoi bat gehiago aktibitate fisikoa eta elikadura osasuntsua gomendatzeko!

Aitor Mendiluze “Dakidana emanez gero, BECen egon naiteke”

Duela lau urte
finalean izan
zelako, final er-
dietan hartuko
du txapelketa-
ko trena Iruran
bizi den Aitor
Mendiluzek.
Zintzo erantzun
ditu Galtzaundiren
galderak.

Igotz Alkorta

Ze gorputzalditan iritsi da Aitor Mendiluze txapelketara?

Nahiko natural iritsi naizela uste dut, nahiko lasai eta neure jardunari neurria hartuta. Ez agian, neure punturik onenean, baina hartzen joan beharko genuke pixkanaka.

Udako plazaz plazako ibiliak txapelketako prestatzeko denbora utzi al dizu?

Udako ibilia eta txapelketakoa oso ezberdinak dira, baina era berean gauza batzuk prestatzeko aukera ematen du, eta saiatu gara horiek baliatzen. Ona da, rodajea hartzen delako, segurtasun sentazioa lortzen delako, eta horrek trantze txar askotatik libra zaitzake; baina ez da ona, bizioak ere hartzen direlako: esaterako, zeure buruari utzitako lizentziak, eta horiek ekidin behar dira txapelketarako. Orain lan espezifikoa egiteko garaia da.

Laugarren txapelketa nagusia da hau zuretzat. Zer eman eta zer kentzen du esperientziak?

Esperientziak egoten eta neurtzen jakitea ematen dizu, txapelketa irakurtzen jakitea eta zer eta nola egin nahi duzun definitzen laguntzen du. Kendu, ez dakit ezer kentzen duen, hasierako ilusio berarekin noa ni behintzat. Zenbaitek presioa gaineratzen duela esaten du, baina presioa zure buruari jartzen diozuna da, beste dena inguruak inguruarentzat sortzen duen giroa besterik ez da.

Finalista izanda, final aurrekoetan sartuko zara lehian. Final laurdenetako saioez, zer inpresio?

Orokorrean, eta esatea agian oso ondo ez dagoen arren, gehiago espero nuen, bertsolari batzuegandik batez ere. Egia da ez dela erraza lehen fasean maila oso altua izatea, txapelketari neurria hartzeko denbora behar dela eta hor hasten diren guztiak ez dutela ez maila eta ezta esperientzia bera ere; baina hala ere, zenbait bertsolarik gehiago eman behar zutela uste dut. Inork gaizki ez hartzea espero dut.

Txapelketak eragindako urduritasuna izan dela esango al zenuke?


Esperientzia faltak eta txapelketaren beraren dimentsioak eragin dezakete urduritasun hori, baina baita nork bere buruari jarritako helburuek ere. Kasu askotan, norberaren lanari baino lotuago dijoazkio norberak lortu nahi lukeen postuari, eta horrek ez du onena ematen laguntzen. Bertsotan gehiago pentsatzea falta dakioko agian zenbaiti.

Bergaran kantatuko duzu, besteak beste, Lujanbio, Gaztelumendi eta Lekuerekin. Hasiera batean saio indartsua da...

Saio ederra da, motibagarria, eta polita izatea espero dudana. Zenbat eta talde indartsuagoa izan hobe dela uste dut, bertso-tan gozatzeko aukerak ziurtatzen dituelako kideei dagokienez. Gero norberak berea egin behar noski.

Finalerdiak bi itzulitara izango dira aurten ere. Nahiago sistema hori?

Beti izaten dira bi itzulitara, baina egia da aurten haseratik


Gehiago espero nuen,
bertsolari batzuegan-
dik batez ere




hasten diren partaideen kopurua handitu dutela eta gero, lehen itzuliko bertsolari guztiek ez dutela bigarrenen kantatuko. Nik aukeran nahiago nuen aurreko edizioako egitura, baina tira, bertsoak izan behar du gure kezka, ez egiturak, ezta?.

Azken bi txapelketetan finalen izanda, BEC-en erreplikatea tentagarria izango da, ezta?

Bai, baina ezin esan nezake gehiegi kezkatzen nauenik. Lehen esan bezala helburuak ez dizkiot postu jakin bati lotzen, eman dezakedanari baidizik. Emanez gero BECen egon naiteke, baina helburua ematea da, ez BECen egotea.

Zaila da kinielak egitea baina Egañarekin batera, ziur finalen egongo den bertsolariaren bat ikusten al duzu?

Aurreko finalean egondako aukera dexente dituztela uste dut, eta aldatzekotan aldaketa bat izan daitekeela, baina ez naiz ausartzen nor izan daitekeen esatera. Finalaren atarian geratzeko aukerak dituzten bizpahiru bertsolari ikusten ditut, baina sartzeko aurrekoetako bat bota behar da, eta jendeari ikusten zaion mailarekin... Haiak berea eginenez gero beste batzuek gainditu eta finaleko postua kentzea ona litzateke agian, baina zaila izango da. Ikusiko dugu... 

Azaroaren 14an, Tolosan izango du geldialdia txapelketaren trenak

Bertsoka bertsoka, finalerdietara eta Tolosara!

Bertsoaren errusiar mendia hasi da BEC-era bidean abiadura hartzen. Finalerdiekin batera duela lau urteko finalistak sartuko dira lehian.

Amaitu da txapelketako lehen fasea. Errusiar trenak bidean utzi ditu 19 bertsolari. Askoren kasuan, urduritasunak galarazi die aurrera egitea. Final laurdenetako 6 saioak gora beheratsuak izan dira, eta ariketa gogoangarriak adina izan dira erdipurdikoak. Bertsozaleak bertsolariekin batera sufritu eta gozatu du.

Gazteen indarra


Final laurdenean utzi diguten gauzarik atseginenetakoa gazteek erakutsi duten indarra da. Jone Uria, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Uxue Alberdi... txapelketa nagusian lehen aldiz parte hartu eta aurrera egin duten gazteetako batzuk dira. Bertso eskolena zalantzan jarri izan dutenak isiltzeko moduko saioak egin dituzte guztiek ere, ideia freskoekin eta esperientziadun bertsolariak estu hartuz.

Azpirarratzekoa da, era berean, emakumeen kopurua. Duela lau urte Amaia Agirre soilik izan zen finalerdietan, oraingoan zazpi izango dira. Indartsu datozen gazteez gain, bertso munduan

berriak ez diren Onintza Enbeita eta Ainhoa Agirreazaldegik ere gainditu dute lehen langa. BEC-en bi emakume ikusiko al ditugu? Ez litzateke seinale txarra.

Final erdian, Tolosa

24 bertsolari hartuko dute parte hastear diren final erdian: Final laurdenetatik sailkatutako 17k eta txapelduna ez beste zazpi finalistek. Ohi bezala bi saiotan kantatuko du bertsolari bakoitzak, eta bietan batutako puntuen arabera zazpi onenek lortuko dute final handirako txartela. Aurten ordea, berrikuntza bat bada, puntu gutxien batzen duten sei bertsolariak ez dira bigarren saiora igaroko. Honela, final erdian lehen itzulian lau saio izango dira, eta bigarrenen hiru.

Lehen fase horretan geratuko da Txapelketa Tolosan. Usabal kiroldegia leporaino beteko da azaroaren 14an. Igor Elorza, Sus-trai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Ainhoa Agirreazaldegi izango dira oholta ganean. Saio antza espero dezakegu, molde oso ezberdinetako bertsolariak elkartuko baitira. Pena, eskualdeko bertsolariak ez dela izango bertan, Bergaran aritzea egokitu baitzaio Aitor Mendiluzeri. Kontuak kontu, ea final erdian bertso emozioen gailurrera igotzeko moduan garen. Badakizu irakurle, igo bertso trenera eta gozatu! 



Korreoa, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa



GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916



ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosakale Nagusia, 16 - Telf. 677 340 685

ZABALA DESGUAZEAK

KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEBOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Donato Larretxeak eta Miel Mindegiak 60 ontzako 20 enbor ebaki beharko dituzte azaroaren 8an jokatu den apustuan

Aizkora

Bi handienak nor baino nor

Miel Mindegia eta Donato Larretxeak jarritako markak hausteko daude oraindik.

Oilategiko oilarrak dira. Eurek dituzte mokorik zorrotzenak. Azaroaren 8an indarrak neurtuko dituzte Tolosako Zezen Plazan.

Apustulari eta aditu gehienek Larretxearen alde egiten dute, Mindegia baino 10 urte gazteagoa dela arrazoituta. Zenbaitzuk Zubietakoak eskaintzen duen bermeaz fidatzen dira. Ikusmin gehien sortu duena ordea, apustulariek egin beharko duten lana da: 60 ontzako 20 enbor.

Leire Zubeldia

Azaroaren 8koa ez da Miel Mindegiak eta Donato Larretxeak indarrak neurtuko dituzten lehenengo aldia izango. 90. hamarkadan Tolosako Zezen Plazan bertan jokatu zuten apustua. Orduan, 40 kana-erdiko ebaki zituzten. Larretxeak irabazi zuen apustua. Azaroaren 8an, 60 ontzako 20 enborri egin beharko die aurre. Anjel Arrospide Leaburuko aizkolariaren arabera, "ordu beteko lana izango dute. Hori, egurra ona bada. Material txarra jarriz gero, luzeago joko du". Txolarre Irratiko Herri Kirol aditua den Joxe Anjel Sarasolaren hitzetan, aspaldiko urteetan apustu batean izan den lanik luzeena izango dute bi naparrek. "Aizkolari gazte asko ez dira lan hau egiteko gai izango. 60 urte dituen Mindegiak eta 50ak beteta dauzkan Larretxeak gazteak baino gehiago direla erakutsiko dute beste behin. Polita izango da biak enbor sail hori ebakitzen ikustea". Egin beharreko lanak eman dio ikusmina apustuari.

Larretxea favorito, baina...

Gehienek Larretxea dute favoritotzat. Anjel Arrospidek bien artean dagoen adin tartea nabarmendu du. "Larretxea Mindegia baino hamar urte gazteagoa da, eta nik uste dut, hamar urteko tartea alde

handia dela adin horretan". Aurreko alean elkarriketatu genuen Jexux Mari Mujikak ere Arantzakoaren aldeko apustu argia egin zuen. "Uda partean erakustaldi batzuk berarekin egitea egokitu zitzaidan, eta oso sasoi puntu onean dagoela ikusi nuen. Gerriak laguntzen badio berak irabaziko du". Elkarren kontra aritu direnetan, Larretxea izan da nagusi. "Donatok Mindegia baino gehiago dela erakutsi du, eta lan batean baino gehiagotan gainera". Oraingo honetan, Mielek bere lurretara ekarri du lehia, eta Sarasolaren arabera, oso garrantzitsua da hori. "Larretxeak abantaila handiak eman dizkio Mindegiari: Egurra Mindegiak berak jarri behar du, berazondo ezagutuko du eramango duen materiala. 20 enbor moztuko dituzte Mindegiak hala nahi duelako. Mindegiak erabaki du enborrak 60 ontzakoak izatea, eta Donato kana-erdikoetan da espezialista. Apustua jokatzeke eguna ere Zubietakoak erabaki zuen. Hori dena bere alde dauka". Abantaila guzti hauengatik, harrijasotzaile ohiak Mindegia jotzen du favorito. Unai Otañorentzat ere mesede handia egin dio Larretxeak Mieli. "Egurra eramaten duenak ondo ezagutzen du plazan izango duen materiala. Prestaketa ere material mota



1985etik 1996ra Tolosako zezen plazan jokaturako apustuak

Taula: Koldo Alduntzin.

horrekin egin dezake". Horregatik ez zuen onartu Mindegiak botatako erronka. "Nik egurrak erdibana jartzea nahi nuen, eta berak ezetz". Atzetik etorri zen Larretxea eta biek hitzartu zuten apustua. Dena den, Otaño ez da irabazlearen izena esatera ausartzen. "Ez dakit nola dagoen ez bata eta ez bestea. Biak ere aizkolari handiak dira. Miel berme bat da, plazara ehuneko ehunean ateratzen baita beti. Baina Donato ere aizkolari bikaina da, kolpe handikoa. Hasieran, Mindegia atzean uzten badu, Zubieta-koari zail jarriko zaio apustua". Denetarako iritzia daude.

Mindegiaren azkena ote?

Plazan erakusten duen sasoirengatik gezurra badirudi ere, Zubietako aizkolariak 60 urte ditu. Aurten, bere ibilbidea aitortu eta txalotzeko omenaldia egin diote herrian. Orain, urteetan aurkari zuzena izan duen aizkolariaren aurka neurtuko ditu indarrak. Datu guzti hauek kontutan hartuta, Joxe Anjel Sarasolak uste du Miel Mindegiak erretiroa hartzeko asmoa duela. "Nire susmoak zuzenak badira, Mindegiak beste arrazoi bat gehiago izango du apustu hau irabazteko", dio. Unai Otañok beste-lako iritzia du: "Mindegiak lan on bat egiten badu, oraindik sasoiko sentitzen bada, nik uste dut jarraitu egingo duela, eta laster ikusiko dugula plazan beste erronka bati aurre egiten", erantzun du argi eta garbi. Zerbait ote daki lbarrako aizkolariak?

Tolosako Zezen Plaza


Adituak harritu xamar azaldu dira apustua jokatzeko hamabost egun falta zirela giroa hotz zegoelako. "Bi aizkolariak


Data	Aurkariak	Lana	Garailea	Denbora	Jokatua
1985-02-24	Mendizabal-Arria II.a	20 kanaerdiko	Mendizabal	32:49	500.000 pez.
1985-06-16	M.Mindegia-Mendizabal	20 kanaerdiko	Mindegia	50:04.02	500.000 pez.
1986-02-10	M.Mindegia-Mendizabal	20 kanaerdiko	Mindegia	48:11	500.000 pez.
1986-03-06	Mendizabal-Arria II.a	18 kanaerdiko	Mendizabal	32:30.66	500.000 pez.
1987-02-01	M.Mindegia-Arria II.a	4 oinbiko eta 4 80 ontzako	Mindegia	37:16.47	500.000 pez.
1987-02-22	M.Mindegia-D.Larretxea	12 oinbiko	Mindegia	49:48	500.000 pez.
1987-03-19	Orbegozo-Olasagasti	12 oinbiko	Orbegozo	1.12:10	500.000 pez.
1987-12-20	Arrospide-M.Mindegia	10 kanaerdiko eta 60 ontzako 10	Arrospide	54:09	500.000 pez.
1988-02-21	M.Mindegia-Olasagasti	14 kanaerdiko eta 110eko 2	Mindegia	1.04:05	Milioi pezeta
1988-03-13	M.Mindegia-Olasagasti	4 kanako	Olasagasti	58:34	500.000 pez.
1988-04-17	Mendizabal-Mendizabal	14 kanaerdiko eta 110eko 2	Mindegia	54:54	Milioi peseta
1988-05-21	Mendizabal-Olasagasti	110eko 4 (bi etzanda, bi zutik)	Mendizabal	1.95:14	500.000 pez.
1989-01-01	Olasagasti-Mendizabal	80 ontzako 16	Olasagasti	1.45:15	Milioi pezeta
1989-02-12	M.Mindegia-Mendizabal	4 kanako	Mindegia	57:09	750.000 pez.
1989-03-19	M.Mindegia-Mendizabal	110 ontzako 6	Mindegia	1.32:20	500.000 pez.
1989-04-02	D.Larretxea-Olasagasti	20 kanaerdiko eta 80 ontzako 8	Larretxea	1.55:55	Milioi peseta
1990-03-25	D.Larretxea-Olasagasti	20 kanaerdiko, Olasagastik 1' alde	Larretxea	35:46	500.000 pez.
1991-02-03	M.Mindegia-Olasagasti	12 kanaerdiko eta 80 ontzako 4	Mindegia	43:14	Milioi pezeta
1991-05-05	Arrospide-M.Mindegia	12 oinbiko	Arrospide	45:08	Milioi pezeta
1992-12-06	Arrospide-D.Larretxea	14 kanaerdiko eta 6 oinbiko	Arrospide	1.06:28	Milioi pezeta
1993-12-05	Arrospide-M.Mindegia	60 ontzako 20	Mindegia	1.02:36	Milioi pezeta
1995-12-10	Olasagasti-Arrospide	80 ontzako 8	Arrospide	49:58	Milioi pezeta
1996-04-14	Ant. Senosiain-Erasun	20 kanaerdiko	Senosiain	39:53	Milioi pezeta




1915. urtean Tolosako zezen plazan jokaturako apustu baten argazkia.

nafarrak izateak eragina du horretan. "Nafarroan giroa gori egongo da, baina giro hori Gipuzkoara iristea kosta egiten da", bat egin dute hirurek. Bi nafar izanda ere, Gipuzkoan jokatuko dute apustua. Tolosako Zezen Plazan zehatz-mehatz. "Tolosako Zezen Plazak sarrera ona du. Bestalde, morboa ere


badu. Bertan jokatu dira herri-kirol apusturik onenak. Gainera, Kantabrikoa inguruan duela giro polita sortzen da". Otañok emandako arrazoi hauengatik, jokatu dira horrenbeste apustu Tolosan. Eta espero dugu, aurreantzean ere gehiago izatea, Tolosako eta Tolosaldeko herri-kirol zaletuen gozagarri. 

 "Larretxea Mindegia baino hamar urte gazteagoa da, eta hamar urteko tartea alde handia da adin horretan"

A. Arrospide

 "Larretxeak abantaila handiak eman dizkio Mindegiari"

J.A. Sarasola

 "Hasiera batean Larretxeak Mindegia atzean uzten badu zail jarriko zaio apustua Zubietakoari"

U. Otaño

irakurri entzun Ikusi



Lagun armatua
Raul Zelik
Txalaparta argitaletxea

Raul Zelik idazle alemaniar-
rrak, Joseba Sarrionandia-
ren Lagun Izoztua eleberria
alemanierara itzuli zuen.
Orain, Lagun armatua ida-
tzi du berak, eta Txalaparta argitale-
txeak argitaratu du euskaraz. Euskal
Herrian kokatutako eleberria da, eta
bertako giro politikoa du ardatz.
Joseba Sarrionandia bera istorioko
protagonista da.

Kicking Against the Pricks
Nick Cave & The Bad Seeds

Nick Cave and the Bad Seedsek argitaratutako hirugarren Albuma da hau. 1986an kaleratu zen lehenen-
goz eta bertsioren bilduma bat da. Izenburua Bibliako pasarte batetik dator kio: "Saulo, Saulo, zergatik pertsegitzen nauzu? Zeuretzat okerrago eztenari ostikoka egiten badiozu". Bibliako kontuak aparte, bertsi-
otio zoragarriak aurkituko ditugu disko honetan, beraien influentzi-
ei errebaso bat eman diete Jonny Cash edota Roy Orbison gogora ekarriz. Aurten berrargitalpen remasteriza-
tua kaleratu dute, CD/DVD bilduma jarraitzaile sutsuentzat.

Gordos

Daniel Sanchez Arevalo

Espainian ekoiztutako ko-
media-drama da. Obesitatea du-
ten hainbat lagun terapia talde batean elkartzen dira; baina ez argaltzeko, euren beldurrei aurre egiteko bai-
zik. Kritika ona jaso du fil-
me honek, eta oro har, ikus-
legoaren gustukoa izaten ari da.



Azaroaren 6tik 20ra arteko hitzorduak

Erakusketak

Azaroaren 14ra arte –
Aranburu Jauregia

- Natxo Barberenaren pintura erakusketa.

Zine Forum

- Azaroak 12: Anticristo filma. 19:15 eta 21:45.

- Azaroak 19: El manantial de la doncella. 19:15 eta 21:45.

Zinea Leidorren

- Azaroak 6: Zorion perfektua. 22:30.

- Azaroak 7: Zorion perfektua. 19:30. Frozen River. 22:30.

- Azaroak 8: Kika superbruja haurrentzako filma. 17:00. Frozen River. 19:30 eta 22:00.

- Azaroak 9: Frozen River. 20:30.

- Azaroak 14: Jennifer's body filma beldurrezko mini-mar toia-
ren barruan. 19:00 eta 21:30. La huerfana. 23:00.

- Azaroak 15: Vikcy Vikingoa haurrentzako filma. 17:00. Gigan-
te 19:00 eta 22:00.

- Azaroak 16: La huerfana. 20:30.

Ikuskizunak

Leidor

- Azaroak 13. Papiro-flexia hip hop dantza ikuskizuna. 20:30.

- Azaroak 20: Lur sagar dantza emanaldia. 20:30.

Musika

Bonberenea

- Azaroak 6: The kluba taldea 20:30ean.

- Azaroak 7: Gargantas desgarradas 20:30ean.

- Azaroak 13: Lain eta Ydilia 20:30ean.

- Azaroak 14: Anje Duhalderen kontzertua 20:30ean.

- Azaroak 20: Zura eta Hedoi Etxarte 20:30ean.

- Azaroak 21: El desvan del macho eta Decapante, 20:30ean.



- Azaroak 27: Desordutan taldearen disko berriaren aurkezpena eta Innerve taldea 20:30etatik aurrera.

- Azaroak 28: Basque country pharaons eta La otra gloria.

Gazteentzako diskofesta

Urriak 14 - Beotibar Pilotalekua

IX. Mus Txapelketa Azkarra

Azaroak 14 – Beotibar pilotalekua

- Beotibar Kafetegiak antolatuta mus txapelketa sari potoloekin. 16:30.

Alegiako Udazken Kulturala

- Azaroak 6: Anjel Unzuren gitarra kontzertua. Kultur etxean 22:00.

- Azaroak 8: Ginkana Languerre txirindulari elkarteak antolatuta. Larraitz auzoan 11:00.

- Azaroak 13: Tenconten antzerki taldearen Ingurumenua haur antzerkia. Kultur Etxean 17:30.

- Azaroak 15: Txintxarri Eguna: 11:00; Meza nagusian kantatuko du Txintxarri Abesbatzak. 12:00; Juan Bautista Deunaren elizan Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua. 14:00; Bazkaria Txintxarri jate-txean.

- Azaroak 19: Maite Franco ipuin kontalaria. Liburutegian 18:00.

- Azaroak 20. Alegiako mapping party-a. Mapa festa: mapa osatu, poteoa eta afaria. <http://txintxarrisfera.ning.com>. Kultur Etxean 18:00.

Berastegiko kultur astea

- Azaroak 6: 16:30; "Altxor bila" (eu-ria egingo balu, azaroaren 13an 16:30tan egingo litzake). 21:00; "Goenkaleko aktoreak kontu kontari" (eskolako ganbaran).

- Azaroak 7 (frontoian): 17:00; Sa-gardoa egin. 17:00; Arroz esne txapelketa (aparkaleku azpiko lokalean). 18:00; Gaztain erre-tzea. 21:30; Antzerki emanaldia Berastegiko antzerki taldearen eskutik.

- Azaroak 8: 12:00; Ardo kata Pre-xen Urkizuren eskutik (Basurde elkartean). 16:30; Xurdir hau-rrerentzat ekitaldia Kutxaren esku-tik. 17:30; Euskaraokea. 18:30; Txokolatada. (Frontoian).

- Azaroak 12: 17:00; Idoia Sánchez ipuin kontalaria (eskolako jange-lan). 21:00; Hondakin berzikkake-ta eta traste zahar bilketa Beras-tegin (eskolako ganbaran).

- Azaroak 13: 16:30; Haurerentzat DVD emanaldia (eskolako ganba-ran). 22:00; Bertso trama (eskola-ko ginasioan).

- Azaroak 14: 12:00; Esne eta kontsumorako esnekiei buruz argibide batzuk hitzaldia Ion Aran-bururen eskutik (Ategin). 15:00; Mus txapelketa azkarra (basur-de elkartean). 16:00; Gazteen I. Duatloia. Ondoren merienda. 18:00; Euskal folkloreakin mun-durantz Oñatiko ganbara abes-batza Kutxaren eskutik (elizan). 21:00; Euskal musika emanaldia Ansa ahizpen eskutik (eskolako ginasioan).

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgu-nean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet eta e-administrazioa	09/11/16	20
Harreman pertsonalen kudeaketa (Adimen emozionala)	09/11/16	20
CNC bidezko programazioa fresagailuan (Heidenhain)	09/11/16	46
Skype, Flickr	09/11/18	4
Fresagailu konbentzionalen mekanizazioa	09/11/30	80
Landa eremuan mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusien zaintzaileei bideratutako ikastaroa (2 ikastaro)	(1) 2010/01/11 (2) 2010/01/25	50

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 6

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Larunbata, 7

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Igandea, 8

Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Astelehena, 9

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Astearte, 10

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Asteazkena, 11

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Osteguna, 12

Ugarte M^aT.
(Euskal Herria, 46)
Ibarra

Ostirala, 13

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Larunbata, 14

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Igandea, 15

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Astelehena, 16

Olarreaga J.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Astearte, 17

Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Asteazkena, 18

Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Osteguna, 19

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Ostirala, 20

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 09ko azaroak 6



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313



eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m2.. 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. 645 718 536

Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukalde eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699 806 031
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hamaka, seaska,...). 653 733 675

Horoskopoa

Azaroaren 6tik 20ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Orain daukazu aukera dakizuna erakusteko. Hala ere, ez kezkatu gehieg; ingurukoek zugan eta zure gaitasunengan sinesten dute. Kontuz sukaldean; ez dago istripu bat izateko leku egokiagorik.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Batzutan ume bat dirudizu, eta nahi duzun hori lortu arteko bakerik ez duzu izaten. Batzuetan eraginkorra izan daiteke, baina kasu honetan, jarrera horrek kaltea besterik ez dizu ekarriko.



sagitarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Gezurak hanka motzak ditu. Zurekin hotz sumatzen baduzu, gezurretan harrapatu zaituelako izango da. Kontuz! Bide horretatik lagun asko galdutuz gero.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ez begiratu besteek eta jar ezazu arreta zuk egin behar duzun horretan. Bestalde, baten bat zure esker onaren zain dago. Zuk jakingo duzu nor den, baina keinurik egiten ez badiozu zuegandik urrunduko da.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zerbait falta zaizu etxean. Onartu nahi ez baduzu ere, bakarrik sentitzen zara iluntzetan telebista aurrean jartzen zarenean. Maskota batek izugarri lagunduko lizuke.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Askotan gehiegi hitz egiten duzu, eta ingurukoak nekatu. Ahoa itxi eta beste dohaiak erabiltzen hasi behar duzu. Erakargarri ikusiko zaituzte. Izarrak zure alde dituzue gainera.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Jendea aldatu egiten da. Hain zuzen ere hori erakutsi nahi dizue berak. Aukera berri bat eskatuko dizue. Ongi pentsatu merezi duen edo ez. Min egin diezazuke.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Gorputzari kasu egin behar zaio. Nahikoa dela esaten ari zaizu. Lehenbailehen geratzen ez bazara okerrera egingo duzu. Medikuari bisita egiteak ere ez lizuke kalterik egingo



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Zorraz, eguneroko gastuak... Itota zabilta. Lasai lo egin dezazkezu. Hurrengo asteetan diru sarrera potolo bat izango duzu. Kontuz birusekin, oso ahul zaude.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Aspaldiko lagun baten bisita jasoko duzu. Ongi etorriko zaizu aspaldi joan ziren garai haien oroitzeari. Zahar bat dirudizu! Atera ispiritu gazte hori! Sorpresa gehiago ere ekarriko dizkizu hilabete honek.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Badaki lanpetuta zabilzala, baina horrek ez dio zure arretaren beharra estaltzen. Ondo etorriko zaizue asteburuxto bat biak bakarrik egotea. Zorraz handitu egiten dira denborarekin, badakizu?



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Zerbait nahi duenak horren alde borrokatu behar du. Sofatik ez da ezer lortzen. Ez dira garai onak atek jozteko, baina zortea zure alde izango duzu.



Sonia Tapia, Fronton Jatetxeko sukaldaria

“Pertsona batzuk Q ziurtagiria jarraituz mugitzen dira. Era honetan bezeroak hurbildu izan zaizkigu”

Euskadin gero eta gehiago dira kalitatearen aldeko apustua egiten duten turismo sektoreko entitateak. Dagoneko, 267 dira Euskadin Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria duten entitateak. Goranzko joera hori, jatetxeen azpisektorean nabarmendu da gehien. Iazko urtea hasi zenetik, %34 igo da kalitate sistema hau martxan jarri duten jatetxeen kopurua, azpisektore honi dagokionez, Euskadi Estatuko rankingaren lehen postuan jarri. Kalitate Turistikoaren Q-ak dakartzan abantailaz gozatzen ari den jatetxetariko bat, Tolosako Fronton Jatetxea da. Gehien bat, antolaketa, azpiegitura eta bezeroen asebetetzean somatu dute Q ziurtagiriaren eragina.

Zeintzuk dira kalitatezko sistemen alde apustu egiteko arrazoiak?

Guk beti pentsatu izan dugu enpresa barruan planak jartzea ona dela. Bide horri ekin genion, eta egia esan gustura gaude.

Kalitate turistikoaren sistema bat izateak zein abantaila ekarri dizkizue?

Q kalitatea ezaguna da. Pertsona batzuk Q ziguiluari jarraituz mugitzen dira. Era honetan bezeroak hurbildu izan zaizkigu. Guri, konkretuki hori gertatu zaigu.

Eta antolakuntza, kudeaketa eta azpiegiturari dagokionez zein onura izan dituzue?

Alor honetan salto handia egin dugu. Paperak, hornitzaileei eskaerak, instalazioa (temperatura, argiztapena, larrialdietako irteerak...) Hori dena hobetu dugu.

Jarri Kalitate Turistikoaren Q-a zure establezimenduan!

94 607 75 86
94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

Eta zer hobekuntza ikusi dituzue bezeroaren asebetetzean?

Guk beti hartu izan dugu kontutan bezeroaren iritzia. Lehen ahoz jasotzen genuen iritzi hori. Orain, inkestak eta galdetegiak betetzen dituzte. Era batera edo bestera, baina bezeroaren iritzia beti jasotzen dugu.

Nola animatuko zenituzke sektore turistikoaren profesionalak kalitatezko Q ziurtagiria eskuratu dezaten?

Paper kontuak egitera ez gaude ohituta. Baldintza eta eskaera mordoa egiten dituzte, eta hasieran beldurra ematen du. Denbora pilo bat erabili behar da eskakizun horiek betetzeko, baina gauza guztiak bezela, hastea da kontua. Gero dinamika hartzen duzu, eta errazagoa da. Guri oso ondo etorri zaigu kalitate turistikoaren Q-a jartzea.

Kalitatezko Q-aren barruan landutako zein kompetentzia nabarmenduko zenituzke?

Ni sukaldaria naiz, eta Q ziurtagiria profesional bezala hazteko erabili dut. Orain lanak banatuta ditugu. Sukaldari bakoitzak

gauza baten gaineko ardura du. Beraz, ez dut dena nik eraman behar. Orain egin behar dudana, eta enpresan egin behar duguna, Q-a eguneroko lanean islatzea da.

Zein aldaketa egingo dituzue kalitatearen kultura zabaltzeko?

Guk aldaketa handirik ez dugu emango. Izan ere, beti egin dugu kalitatearen aldeko apustua. Guk erabiltzen ditugun produktuak kalitatezkoak dira. Honenbestez, orain artekoari eutsiko diegu.




Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Euskal Turismo Agentziarekin batera, turismo sektoreko enpresariene esku utzi ditu, euren entitateak lehiakorragoak izan daitezen beharrezko diren honako tresnak:

- **Jardunbide egokien programa:** Honen helburua enpresariene "profesionalitatea" hobetzea da. Euskadin 274 dira Kalitate Turistikoarekin konpromiso Diploma duten establezimenduak.

- **Kalitate Turistikoaren Q Programa:** Bezeroen asebetetzea bermatzen duen programa da. Euskadin, 267 entitate turistiko dira Q markaz nabarmentzen direnak.

- **Bikaintasunaren EFQM ereduaren programa:** Kalitateari dagokionean, bikaintasunaren mailaraino igotzea proposatzen duen programa. Euskadin 27 entitate dira proposamenari heldu diotenak.



indarrak bildu euskara indartu

E g i n z a i t e z b a z k i d e !



galtzaundi
euskara taldea

Izena _____ Abizenak _____

Helbidea _____ Herria _____ Posta kodea _____

Telefonoa _____ Web _____ Posta elektronikoa _____

Banku/Aurrezki kutxako korrante zkia. (20 digitoak) _____

Sinadura _____

Dirulaguntza mota

Urtean 41 €

Urtean ___ €

Kupoi hau moztu eta eraman Galtzaundiko bulegora. Nafarroa etorbidea, 6 behea
20400 Tolosa, edo bidali mezua galtzaundi@galtzaundi.com helbidera.